

## **Basogintzari laguntzak, laster; eta Batzar Orokorra, datarik gabe**

Basogintzaren sektoreko laguntzak arautzen dituen 2020ko dekretua argitaratzear du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Laster ezagutuko dugu, baina, tamalez, uste dugu aurtengo testuak ez dituela Baso Elkarreak (GEBE) egindako ekarpen nagusiak jasoko. Horren beldun gara. Gipuzkoako Buletin Ofizialean (GBO) argitaratzen duten bezain laster (datozen egunetan espero dugu), ardatz nagusien laburpena helaraziko dizuegu.

Bestalde, aurten (ohi bezala, maiatzaren bigarren igandean) egitekoa zen bazkideen XXXVI. Batzar Orokorra ezin izan dugu deitu oraindik. Bistakoa da, COVID-19aren pandemiak sortutako egoera eta horren ondorioz indarrean dagoen Alarma egoera. Horren guztiaren ondorioz, data berririk izan izan dugu zehaztu oraindik, baina osasun larrialdiak aukera ematen digunean deialdia egingo dugu.



**GIPUZKOAKO**  
**BASO ELKARTEA**

---

ASOCIACIÓN DE PROPIETARIOS  
FORESTALES DE GIPUZKOA